

MÁS QUE UNA REVISTA

Hoy miro por la ventana a las montañas más próximas a mi hogar, mientras recuerdo cómo comenzó mi amor hacia ellas. Fueron mis padres quienes, con esos primeros paseos al parque natural de Valderejo, me hicieron descubrir la belleza que esconde cada rincón de nuestras montañas. Un bosque que estalla en colores en pleno otoño, el estruendo de la cascada que rompe sus aguas con el deshielo de la primavera, la ardilla que salta huidiza de árbol en árbol... cada salida era una aventura diferente a la anterior y en todas y cada una de ellas aprendía algo nuevo. Así fueron creando unos valores en mí, valores de compañerismo, amor y respeto hacia lo que nos rodea; aquellos con los que debemos cumplir para tener éxito, desde la salida más sencilla hasta las grandes escaladas, como la del Dorje Lakpa que abordamos en este número. Estos valores me llevaron años después a practicar con asiduidad el senderismo y otros tantos deportes relacionados con la montaña. Y decidí federarme y con ello, llegó la revista Pyrenaica a mi casa. Con ella, descubrí lugares que por aquel entonces ni me podía imaginar que existieran; me parecían dignos del escenario de la mejor película de fantasía que se pueda rodar. Lugares como el precioso valle de Xareta, a la sombra del monte Larhun, o el solitario y siempre mágico parque natural de los Collados del Asón. Cada tres meses, cuando sabía que se acercaba la fecha de publicación, al entrar en casa me acercaba ansioso al buzón en busca de la revista. Si no estaba, mi ánimo decaía... pero cuando llegaba, rápidamente la ojeaba entera para clasificar los artículos según mi interés y así poder coger ideas para nuevas salidas.

Son muchos los años que llevo recibiendo Pyrenaica, años en los que la he visto evolucionar acorde a los tiempos y ese es y debe ser nuestro reto principal en los próximos años: adaptar la revista a los nuevos tiempos y asegurar su existencia. Vivimos tiempos convulsos, todavía hoy recordamos que no hemos terminado de salir de una pandemia que nos obligó a "encerrarnos" en las montañas más cercanas, y sin librarnos de ella hemos entrado en un conflicto que afecta a la economía mundial, sin que pase desapercibido para nadie, ni siquiera para Pyrenaica.

Pero las montañas, nuestras queridas montañas, siempre estarán ahí esperándonos. Refugio de nuestra libertad, de nuestra paz interior, ellas son las que nos ayudan a olvidar y soñar. En este número podremos también soñar con lugares tan lejanos como las Montañas Rocosas, o sumergirnos en el mundo subterráneo de Larra. Os invito a sentaros en el sofá mientras tenéis esta revista en vuestras manos, olvidar todas las preocupaciones que atormentan vuestras cabezas, y viajar a las montañas que tanta paz nos dan con la lectura de cada uno de estos artículos.

Deseo, pues, que disfrutéis de este número tanto como yo lo he hecho siempre y que, en cada una de las salidas que hagáis fruto de su lectura, no olvidéis las palabras del conocido dicho popular: "Zaindu maite duzun hori".

DIRECTOR DE
PYRENAICAPYRENAICA
ALDIZKARIAREN
ZUZENDARIA

Iván Ruiz Rotaeché

ALDIZKARI BAT BAINO GEHIAGO

Gaur leihotik begiraten diet nire etxetik gertuen dauden mendiei, nire haienganako maitasuna nola hasi zen gogoratzen dudana bitartean. Nire gurasoak izan ziren, Valderejoko parke naturalerako lehen ibilaldi horiekin, gure mendietako bazter bakoitzak ezkututzen duen edertasunaren berri eman zidatenak. Udazken betean koloretan lehertzen den basoa, udaberriaren urtzean bere urak hausten dituen ur-jauziaren burrunba, zuhaitzez zuhaitz jauzika ihes egiten duen urtxintxa... irteera bakoitza aurrekoaren abentura ezberdina zen eta guztietan zerbait berria ikasten nuen.

Horrela, nigan balio batzuk sortu zituzten, adiskidetasuna eta inguruarekiko maitasun eta errespetua; arrakasta izateko bete behar ditugun balioak, irteera errazenetik hasita, eskalada handietaraino, zerbaki honetan jorratuko dugun Dorje Lakpa mendiarena bezala. Urte batzuk geroago, mendi-ibiliek eta mendiarekin lotutako beste hainbat kirol praktikatzera eraman ninduten balio horiek. Eta federatzea erabaki nuen, eta Pyrenaica aldizkaria etorri zitzaidan etxera. Harekin batera, garai hartan imajinatu ere egiten ez nituen lekuak aurkitu nituen; filmatu daitekeen fantasiazko filmik onenaren eszenatoki duinak iruditzen zitzaizkidan. Besteak beste, Larhun mendiaren itzalpean dagoen Xareta bailara ederra, edo Asoneko mendien parke natural magiko eta bakartia.

Hiru hilean behin, argitalpen-data hurbiltzen ari zela nekienean, etxera sartzean irrikaz hurbiltzen nintzen postontzira aldizkariaren bila. Ez bazegoen, gogoan motteltzen zitzaidan, baina iristen zenean, berehala begiztatzen nuen, artikulua nire interesaren arabera sailkatu eta, horrela, irteera berrietarako ideiak hartzeko asmoz. Urte asko daramatzat Pyrenaica jasotzen, eta urte horietan garaiaren arabera eboluzionatzen ikusi dut, eta hori da eta izan behar du gure erronka nagusia datozen urteetan: aldizkaria garai berrietara egokitzea eta aldizkariaren existentzia ziurtatzea. Garai nahasiak bizi ditugu, oraindik ere gogoan dugu ez dela amaitu etxetik hurbilen ditugun mendietan giltzapetu gintuen pandemia, eta ia honetatik libratu gabe, munduko ekonomiari eragin dion gatazka batean sartu gara, inorentzat oharkabean pasatu ez dena, ezta Pyrenaicarentzat ere.

Baina mendiak, gure mendi maiteak, beti egongo dira gure zain. Gure askatasunaren eta gure barne bakearen babesleku, haiek dira ahazten eta amesten laguntzen digutenak. Zerbaki honetan, urrutiko tokiekin ere amestu ahal izango dugu, hala nola Mendi Harritsuekin, edo Larrako lurpeko munduan murgildu. Aldizkari hau zuen eskuetan daukazuen bitartean, sofan eseri, zuen buruak oinazetzen dituzten kezka guztiak ahaztu eta artikulua hauetako bakoitzaren irakurketarekin hain bake handia ematen diguten mendietara bidaiatzera gonbidatzen zaituztet.

Beraz, zerbaki honetaz nik beti egin dudana bezainbeste goza dezazuen eta, bere irakurketaren ondorioz egiten duzuen irteera bakoitzean, herri-esaera ezagunaren hitzak ahaztu ez ditzazuen espero dut: «Zaindu maite duzun hori».